Irigaray alkateak 2022ko azaroaren 11tik abenduaren 15era eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- 2023ko ZERGA TASAK ONARTZEA

Irigaray alkate jaunak hitza hartu du eta esan du 2023rako zerga-tasak onartu behar direla, eta proposatu du iazko tasa berberak onartzea, lurralde-kontribuzioarena izan ezik; izan ere, 2020ko abenduaren 18ko bilkuran erabaki bezala, karga-tasaren % 0,02ko igoera aplikatzen da, legeak eskatzen duen gutxienerako karga-tasa % 0,25era iritsi arte, eta, beraz, lurralde kontribuzioaren karga-tasa 0,19tik 0,21era pasatzen da.

Aho batez erabaki da 2023ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:

1. Ehuneko 0,21eko karga-tasa jartzea hiri-lurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko (landa eta hiri kontribuzioa)
2. Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko. (Gutxienerako tarifa 30,00 €).

3. Ekonomia-jardueren gaineko zerga: aurten, 1.000.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten subjektu pasiboek ez dute zerga hori ordaindu beharko. Behartutako subjektuak: 1,4 aplikatzea.
 4. Hiri-lurren balio igoseraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,5ekoa izatea.
 5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Gobernuak ezarritako tarifak.
 6. Etxeko egur-lote bakoitzeko 30,00 euroko tasa jartzea.
 7. Udaleko gainerako zerga-ordainarazpenei KPIa ez aplikatzea
- Erabaki honek 2023ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

4.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Irigaray alkateak jakinarazi du beharrezkoa dela aurrekontuko aldaketak egitea kontuan ongi egin ahal izateko eta udalbatzak erabaki du aho batez honako aurrekontu aldaketak onartzea:

AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA 2022. URTEALDIRAKO. HONA HEMEN LABURPENA:

1ª.-

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3340 22740	KULTUR JARDUERA PROPIOAK SAN JUAN FESTAK	8.601,69
1 3380 2262004	MUGAZ GAINDIKO KULTURA	8.238,58
1 3360 2260900	PROIEKTUA	9.400,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		26.240,27
---------------------------------	--	------------------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
8700	GASTU OROKORRETARAKO	7.872,22,
7508005	MUGAZ GAINDIKO JARDUERETARAKO DIRULAG.	11.400,00
3392001	DIRU-SARRERAK FESTAK- ARTISAUAK	4.968,05
4508007	KULTURA DIRU-LAGUNTZA	2.000,00

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		26.240,27
--	--	------------------

2^a.-

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
3360 6890000	ITURISSA BALIOAN JARTZEA	11.095,97

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		11.095,97
--------------------------	--	-----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
7508007	ITURISA DIRU-LAGUNTZA	8.304,76
7790002	MECNA ITURISSA	2.791,21

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		11.095,97
-------------------------------------	--	-----------

3^a.-

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
4910 2279901	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	1.534,40

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		1.534,40
--------------------------	--	----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
4508010	DIRU-LAGUNTZA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	1.534,40

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		1.534,40
-------------------------------------	--	----------

4^a.-

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
------------	-------	------------

2311 4630000	AUÑAMENDI MANKOMUNITATEKO KUOTA	3.480,00
--------------	---------------------------------	----------

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		3.480,00
--------------------------	--	----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
87000	GASTU OROKORRETARAKO ETA UKITUTAKO BALIABIDEAK DAUDELAKO	3.480,00

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		3.480,00
-------------------------------------	--	----------

5^a.-

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 9200 12005	E MAILAKO SOLDATAK	1.200,00
1 9200 13000	LAN-KONTRATUDUN LANGILEAK	1.700,00
1 9200 1310001	BEHIN-BEHINEKO LAN KONTRATUDUNAK	2.400,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		5.300,00
--------------------------	--	----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
87000	GASTU OROKORRETARAKO	5.300,00

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		5.300,00
-------------------------------------	--	----------

5.- NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIARI BURUZKO EBAZPENA BERRESTEA

Irigaray alkateak jakinarazi du bere garaian eta Nafarroako Lurralde Estrategiaren dokumentuari ekarpenak egiteko epean 31 ekarpen aurkeztu direla. Pirinioko Mahaiak proposatu zuen eremuaren alegazio bateratua egitea orekari, garapen ekoiraunkorrari eta

despopulazioari dagokienez, eta udal bakoitzak aurkeztu behar du, osoko bilkurak berretsi beharreko ebazpen gisa. Ebazpen hori udalkide guztiek berretsi dute. Hona hemen:

172/2022 EBAZPENA, 2022ko abenduaren 15ekoa.

Ikusirik Nafarroako Lurralde Estrategiaren dokumentua jendaurrean egonen den epea abenduaren 15ean bukatuko dela.

Udalkide guztiei kontsulta egin ondoren.

EBATZI DUT:

Honako ekarpena igortzea eta hurrengo osoko bilkuran berrestea.

Duela hiru urte, PIRINIOKO PLANA egin zen, eta, bertan, lurraldeak bizitzako hainbat eremutan dituen beharrak eta gabezia eta behar horiek zuzentzeko jardueraren proposamenak jaso ziren. Denbora horretan aurrera egin da, horretarako jarritako baliabide ekonomiko eta giza baliabideei esker.

Hala ere, erabat konbentzituta gaude despopulazioa aintzat hartu eta artatuko duen lege marko baten beharraz, Nafarroako hainbat landa-eremutako errealitate horiek iraultzeko politika publiko egokien diseinuan ekarpenak egiteko gai izango dena.

Horregatik uste dugu garrantzitsua dela Nafarroako Lurralde Estrategia egiteko prozesu honetan gure esperientziatik zehaztea eta ekarpenak egitea:

Nafarroako Lurralde Estrategia honetan diseinatutako politika guztiek lurralde-kohesioa eta -oreka izango dituzte helburu nagusi.

Herritarren parte-hartze aktiboa eta landa-ekonomiaren aktibazioa, sendotzea eta indartzea garapen-ikuspegi ekojasangarri eta berritzaileetatik landuko dira Horretarako, denbora-tarte laburrean, Despopulazioari buruzko Lege bat garatu eta martxan jarri beharko da, arazo horrekin identifikatutako landa-eremuekin kontrastatuta eta landuta.

6.- LANDARE-HONDAKINAK ISURTZEKO EREMURAKO ARAUDIA (IPETEA)

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Ipetea inguruan, Massoko borda eraistearen sustatzaileari baimena eman ziola eraistetik ateratako zurak biltzeko, baina, jasandako lehortearen ondorioz, ezin izan zela erre azaroa arte. Bitartean, kontrolrik gabeko isurketak pilatzen hasi ziren, eta Guardia Zibilaren SEPRONAREN ikuskapen-akta bat jaso zen. Ingurua garbitu ondoren, agoazilari posteeekin ixteko agindu zion, oinezkoen sarbiderako lekuaren iragazkortasuna bermatuz eta ibilgailuentzako sarbidea kontrolatzeko kate batzuk jarritz. Bere ideia dela kate horien giltzarrapoa Udalak kontrolatzea; horrela, auzotar batek bertara ibilgailuz sartu behar badu, giltza eskatu behar du, eta, horrela, isurketa handiak kontrolatu ahal izango dira. Gaineratu du, Bidausi hondakinen mankomunitatearekin batera, eremua kudeatzea aurreikusten dela, inausketetatik, lorategien segatik eta korleen garbiketa organikoetatik eratorritako landare-hondakinak behar bezala utz daitezen. Horretarako, jarraibideen gaineko oharra prestatuko da etxeetara igortzeko.

Juandeaburre zinegotziak proposatu du udaberria baino lehen egitea eta espazio ireki bat uztea, orga txiki batekin joanez gero, giltza eskatu beharrik gabe sartu ahal izateko.

Alkateak erantzun du Juandeaburre zinegotziaren iradokizunak kontuan hartuko direla.

Udalbatzak erabaki du aho batez inausketetatik, lorategien segatik eta korleen garbiketa organikoetatik eratorritako landare-hondarretarako Ipetean dagoen eremua kudeatzea, proposatutako jarraibideen arabera.

7.- ABEREEN GORPUAK UZTEKO TOKIARI BURUZKO ERABAKIA

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du basozainak ikuskapen-akta bat bidali duela abereen gorpuak Berroaundian prestatutako tokitik kanpo uzten direla salatuz. Bere ustez, Berroaundia ez da abereen gorpuak uzteko lekurik egokiena; izan ere, etxe-abereen kontzentrazio handia eta pertsonen joan-etorri handia duen larre baten barruan egoteaz gain, sarraskijaleek zailtasunak dituzte hegan egiteko. Horregatik, zerbitzu horretarako beste kokapen bat bilatzea proposatzen du, eta, udalerrian baldintza ezin hobeak betetzen dituen lekurik ez badago, udalerrri mugakideekin harremanetan jartzeko aukera irekitzea, leku egokia lagatzeko. Lekua aukeratzeko, basozaintzaren aholkularitza izango dela, eta, aukeratu ondoren, abeltzainei proposatuko zaiela haien iritzia jakiteko.

Udalbatzak erabaki du aho batez abereen gorpuak uzteko Berroaundian dagoen tokia baino hobeago bat bilatzea.

8.- 5. POLIGONOKO 52. LURZATIA BANATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ONARTZEA (MANESENEKO BARATZEA)

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Manesena baratzea izenez ezagutzen den udal-katastroko 5. poligonoko 52. lurzatiaren katastro-historiala aztertuta, indarreko katastroa ezartzean akats bat dagoela eta zuzendu egin behar dela. Udal artxiboan dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, gaur egungo katastroko lurzattia lehengo katastroko 4. poligonoko F esparruko 3. lurzatiari dagokiola egiazta daiteke. Esparru horretan, herri-baratze gisa ageri da. 1956ko irailaren 24an, Udalak erabaki zuen 48 metro koadro besterentzea Catalina Mestre andreari, eta, erabaki horren ondoren, ez dago jasota lurzatiaren gainerako zatia besterentzerik; beraz, ulertzen da jabetza ez dela aldatu. Horregatik, 1956ko erabakiaren arabera partzela bereizteko izapideak hasia proposatzen du. Horretarako, jasotze topografiko bat egin beharko da, banantzearen azalera zehatzak zehaztuko dituen, dagokion katastro-aldaketa egiteko. Lurzattia neurri zehatzekin salduta geratuko da egungo titularren izenean, eta bestea Aurizko Udalaren izenean.

Udalbatzak aho batez erabaki du 5. poligonoko 52. partzela bereizteko espedientea hasia, eta, horretarako, banantzearen ondoriozko azalera zehaztuko dituen jasotze topografikoa egitea eskatuko du.

9.- BASO-BIDEEN ERABILERA, FINKETARAKO ETA HERRIKO KARRIKETARAKO SARBIDEAK ETA AUTOKARABANAK APARKATZEA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEA-5.bis kapituluak-ibilgailuak herrigunearen barnean aparkatzea. HASIERAKO ONESPENA.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Auritzeko herri-lurretan sartzen diren kanpoko abereak daudela. Horregatik, eta herritarren ordenantzan jasotzen ez diren egoera horiek saihestu eta zigortu ahal izateko, ordenantza aldatzea proposatu du, eta IX. tituluan (arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa, 70. artikulua) paragrafo berri bat sartzea, Udalaren

baimenik gabe kanpoko azienda sartzeari debekatzeko, eta 71. artikuluan kasu horietan 150 euroko isunaren zenbatekoa gehitzea

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Ordenantzaren aldaketa hasiera batean onartzea eta honakoa gehitzea:

5.bis Kapitulua-Ibilgailuak herrigunearen barnean aparkatzea. (2022-12-19 OSOKO BILKURAN ALDATUA)

Ibilgailuak baimendu eta seinaleztatu gabeko eremuetan aparkatzea ordenantza honen 7. kapituluko 17. artikuluan ezarritakoaren arabera zehatuko da.

2.- Aldaketa jendaurrean jartzea NAO-n hilabeteko epean, Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen 325 artikuluen arabera.

HERRI-APROBETXAMENDUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA-IX Titulua-Arau hausteak eta zehapenak.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Auritzeko herri-lurretan sartzen diren kanpoko abereak daudela. Horregatik, eta herritarren ordenantzan jasotzen ez diren egoera horiek saihestu eta zigortu ahal izateko, ordenantza aldatzea proposatu du, eta IX. tituluan (arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa, 70. artikulua) paragrafo berri bat sartzeari, Udalaren baimenik gabe kanpoko azienda sartzeari debekatzeko, eta 71. artikuluan kasu horietan 150 euroko isunaren zenbatekoa gehitzea

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Ondoko artikuluen aldaketa hasiera batean onartzea:

70. art.-

h) Kanpoko azienda sartzeari Aurizko Udalaren baimenik gabe.

71. artikulua.-

h) Kanpoko azienda sartzeari Aurizko Udalaren baimenik gabe.

150 euroko isuna.

2.- Aldaketa jendaurrean jartzea NAO-n hilabeteko epean, Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen 325 artikuluen arabera.

11.- ALKATETZEN ITUNARI ATXEKITZEA

Irigaray alkateak Europa bidezkoago eta neutraltasun klimatikoagoaren aldeko alkatetzaitunaren berri eman du. Itun hori Europa osoan egiten ari da klima-aldaketaren aurkako borrokan, eta itun horri atxikitzea proposatu du.

Honako itun hau babestea eta onartzea erabaki da aho batez:

Guk, Europa osoko alkateok, gure klima-anbizioak areagotzen ditugula adierazten dugu, eta zientziak eskatzen duen abiaduran jarduteko konpromisoa hartzen dugu, munduko tenperaturen igoera 1,5etik behera mantentzeko ahalegin bateratuan, Parisko Akordioaren anbiziorik handiena baita.

Urteak dira hiriek klimaren eta ingurumenaren erronkak aukeretan bihurtzen ari dituztela. Iritsi da garaia lehenetsun nagusia bihurtzeko maila globalean

Alkatetzaren eta Europaren arteko Itunaren sinatzaile garen aldetik, konpromisoa hartzen dugu bidaia honetan guztiak eramateko Gure politikek eta programek ez dutela ez lekurik ez pertsonarik atzean utziko ziurtatuz.

Europa klimatiko neutral baterako trantsizioak eragina izango du gure gizarteen alderdi guztietan. Tokiko liderrak garen aldetik, arreta handiz begiratu behar diegu inpaktu horiei, ekitatea eta inklusioa bermatuz. Bidezkoa, inklusioa eta herritarrekiko eta gure planetako baliabideekiko errespetuzkoa izango den trantsizioan baino ezin dugu pentsatu

2050erako gure ikuspegia da guztiok hiri deskarbonizatuetan eta erresilienteetan bizitzea, energia eskuragarria, segurua eta jasangarria eskuratzeko moduan. Europa-Alkatetzen arteko Itunaren mugimenduaren barruan, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten jarraituko dugu (1) gure lurraldean, (2) erresilientzia handitzen, klima-aldaketaren kontrako inpaktuetarako prestatzen eta (3) energia-pobreziari erantzuten trantsizio justua bermatzeko funtsezko ekintza gisa.

Jakin badakigu EBko estatu kide guztiak, eskualdeak eta hiriak trantsizio-aldi desberdinetan daudela, eta bakoitzak bere baliabideak izango dituela Parisko Akordioan ezarritako anbizioei erantzuteko. Berririo aitortzen dugu klima-krisiari erantzuteko dugun erantzukizun kolektiboa. Erronka ugariak erantzun politiko handia eskatzen diete gobernu-maila guztiei Alkatetzen Ituna - Europa, batez ere, tokiko konponbideak partekatzen dituzten eta elkar inspiratzen duten alkate konprometituen mugimendua da, beren ikuspegia egia bihurtzeko.

Gure ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dugu, ondoren adierazten diren ekintzei ekinez:

1. KONPROMISOA HARTZEN DUGU epe ertain eta luzerako helburuak ezartzeko, EBren helburuekin bat datozenak, eta, gutxienez, gure helburu nazionalak bezain ambiziotsuak 2050erako klima-neutraltasuna lortzea da gure asmoa.

Egungo larrialdi klimatikoa kontuan hartuta, klima-aldaketaren aurkako ekintza izango da gure lehentasuna, eta hala jakinaraziko diegu herritarrei.

2. Herritarrak, enpresak eta gobernu-maila guztiak ikuspegi horren ezarpenean eta gure gizarte- eta ekonomia-sistemen eraldaketan INPLIKATUZ. Klima-aldaketaren aurkako tokiko itun bat garatu nahi dugu, helburu horiek lortzen lagunduko diguten eragile guztiak barne.

3. Orain eta elkarrekin JARDUNGO DUGU, beharrezkoa den trantsizioa aurrera eramateko eta azkartzeko Gure helburuak lortzeko ekintza-plan bat garatu eta ezarriko dugu, eta plan horri buruzko informazioa emango dugu ezarritako epeetan. Gure planek klima-aldaketa arintzeko eta hari egokitzeko xedapenak jasoko dituzte, inklusioa mantenduz.

4. *SAREAK SORTZEN tokiko alkate eta liderrekin, Europan eta haratago, elkarrengandik inspirazioa lortzeko. Alkateen Itun Globalaren mugimenduarekin bat egitera animatzen ditugu, munduan dauden edozein lekutan, helburu horiek eta horietan deskribatutako ikuspegia bete ditzaten.*

Guk, Alkatetzen Ituna - Europa sinatu dugunok, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko urratsak (Konpromisoa, Parte-hartzea, Ekintza, Sareko Lana) eman ditzakegula baieztatzen dugu. Elkarrekin lan egingo dugu gure ikuspegia egia bihurtzeko.

Gure gobernu nazionalen eta Europako erakundeen babesu dugu, eta baliabide politiko, tekniko eta ekonomikoak emango dizkigute, gure nahien mailari erantzuteko.

Auritzeko Udaleko alkateak, Udalbatzak aginduta, bat egin du ekimenarekin, Pirinioaurrea izeneko taldearen parte gisa. Honako hauek osatzen dute taldea: Agoitz, Artzibar, Ibargoiti, Izagaondoa, Lizoain, Longida, Irunberri, Elo, Orotz-Betelu, Erromantzatua, Untziti, Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Urrotz-Hiria. 2050erako karbono-neutraltasuna bereiz lortzeko konpromisoa hartu du.

12.- EDUARDO ARROSAGARAY AUZQUIK IPETEAN ESKATU DUEN LURZATIA

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta Arrosagaray jaunak Ipotea poligonoan lursail bat alokatzeko (hiru urterako, erosteko aukerarekin) aurkeztu duen eskaeraren berri eman du, egurra uzteko. Izan ere, gaur egun egiten duen lanarekin batera, egurra prestatzeko eta gune zoologiko bat instalatzeko bideragarritasuna frogatu nahi du. Bi jarduerak, hasiera batean, ez dute azpiegitura finkorik behar, instalazio desmuntagarriak baizik.

Udalkideen arteko eztabaidaren ondoren honako erabaki da aho batez:

- Ipoteako industrialdeko partzela bat alokatzea Arrosagaray jaunari, hilean 100 euroko zenbatekoan, hiru urterako. Hori amaitzean, partzela hori erosteko aukera izango du, unean bertan zehazten den prezioan, eta instalazioak, hasiera batean desmuntagarriak izan arren, udal-arkitektoaren adostasun-txostena eraman beharko dute

13.- IÑAKI CILVETI LECUMBERRIK AURKEZTUTAKO IDATZIARI DAGOKION ERABAKIA

Joan den azaroaren 10ean jasotako idazkiaren ondoren, Carlos Leache Arreseri lagatako azalerari buruzko gogoeta eta galdera batzuk egin zitzaizkion, Udalaren eta abeltzainen arteko akordioa betetz, Udalbatzako batzorde batek ikuskapen-bisita egin ondoren eta ondoren Carlos Leacherekin bildu ondoren.

Aho batez erabaki da Cilveti jaunari honakoa jakinaraztea:

Kanpaina honetarako utzitako azalera Iñaki Cilvetiren esku dago, eta, aurreko legegintzaldian abeltzainen eta Udalaren artean adostutakoaren arabera, Carlos Leache Arresek ez du belardia eriteko betebeharririk. Leache jaunak batzordeari jakinarazi zion abeltzain batzuekin akordioak egin dituela, baina akordio partikular horiek baino ez dituela bete behar. Hartara, azaldu zuen prest dagoela lurra prestatzeko. Hortaz, bi aldeak

entzun ondoren, Udalak uste du bien artean hitz egin eta adostu behar dutela (Cilveti eta Leache).

Egindako saiakuntzei dagokienez, Batzordearen galderei erantzunez, Leache jaunak azaldu zuen Adermat enpresaren saiakuntzak zirela, Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak baimendutakoak, alanbre-harraren eta marraskaren aurkako borrokarako produktu natural eta ekologikoak probatzeko. Batzordeak jakinarazi zio Leache jaunari, lurak herrikoak direnez, Udalari esan behar izan ziola saiakuntzak egin behar zituela.

Cilveti jaunaren iritziz, bere ustiapenak jasaten duen kalteari dagokionez, gogorarazi behar zaio joan den legealdian abeltzainen eta Udalaren artean hartutako akordio eta konpromiso bat dela, Carlos Leache Arrese jaunak ere bazuelako gauzatzen ez zen herri-gozamenerako eskubidea; izan ere, alde guztiek nahiago izan zuten akordio hori lortu bazkalekuen esleipena berritzea baino.

Beste aldetik esan du adjudikatu zitzaizkion 14,23, eta ez 13 berak dioen moduan. Hektareetatik 8 ez direla bideragarriak patata ereiteko arautegia dela eta. Horri dagokionez esan zaio hiru kanpainatan ereiteko muga aurten utzi zaion azalerari besterik ez diola eragiten, hau da, 3,39 ha.

Data horietan (azaroaren 10ean) ereite bideragarririk egin ezin izanari dagokionez, Leache Arrese jaunak jakinarazi zuen bi hektareako esparrua hamabost egun lehenago amaituta zegoela, eta zati horretan belardia erein zezakeela. Horretarako argudiatzen du baldintza klimatikoek ahalbidetu zutela, beranduago erein baitzuen eta emaitza ona izan baitzuen (Arrobi-Zakarrola).

Azpiegiturei dagokienez, batzordeak akatsen bat ikusi zuen alanbre-hesian, eta Carlos Leache Arresek konpontzeko konpromisoa hartu zuen.

Landutako azalera ez ezagutzeari dagokionez, SIGPAC-Navarra 2022 delakoaren arabera, 3,39 hektarea dira.

Azkenik, esan behar da Udalak ulertzen duela, lagapenean, sortzen diren gaiak abeltzainen eta Udalaren arteko akordiotik kanpoko gaiak direla, eta, beraz, bien artean ebatzi behar direla, eta erakunde horrek ez duela bitartekaritzarik egin behar gai horretan.

Gai-zerrendatik kanpo, Irigaray alkateak adierazi du gaur jakin duela Erroibar, Auritz, Luzaide eta Garraldako taxilariak eskatu dutela tokiko korporazioek taxi-eremu bat sortzea onar dezaten, zerbitzua hobetzeko. Eskaera hori 2014ko urriaren 4ko bilkuran aztertu eta onartu zen, eta, beraz, Erroibar, Auritz, Orreaga, Luzaide eta Garralda udalerririk hartu dituen taxiaren lurralde-eremua sortzeari buruzko akordioa onartzea proposatzen du.

Guztiak ados daudenez gai hau aztertzearekin, aho batez erabaki da Erroibar, Orreaga, Luzaide, Garralda eta Aurizko udalerriak hartuko dituen taxi-eremu bat sortzeko izapideak hastea, eta erabakia udalerrri horiei helaraztea, dagokion erabakia har dezaten.

Azanza zinegotziak, bandoak eta komunikazioak paperean edo webgunean zabaltzeari kalterik egin gabe, zabalkunderik azkarrena wasap dela kontuan hartuta, deialdiak eta komunikazioak zabaltzeko udal wasap talde boluntario bat sortzea proposatu du. Difusio talde bat izango litzateke, informazioa emateko besterik ez.

Udalbatzak Azanza zinegotzi andrearen proposamena onartu du, eta administrazio-zerbitzuek eta alkatetzak izango dute komunikazioen berri emateko aukera.

14.- BESTERIK

Ekintza bandalikoak

Irigaray alkateak jakinarazi du duela gutxi bandalismo-ekintzak egiten jarraitu dutela, hala nola Orreaga kaleko kale-argi bat erabat apurtu izana, horren berri eman gabe eta kableatuaren korrante elektrikoak eragindako arriskuarekin, edo Josta-Leku frontoiko argiztapen-ekipoen sabotajea, horiek erabili gabe utzita, oraindik ez baitakigu konpondu ahal izango diren edo ordezkatu egin beharko diren, eta, beraz, oraingoz ezin izango da frontoia erabili.

Juandeaburre zinegotziak auzokideei bando bat bidaltzea proposatu du, sistematikoki errepikatzen diren gertakari horien berri izan dezaten. Udalbatza jakinaren gainean dago eta Juandeaburre zinegotzi jaunaren proposamena onartu du

Pirinioko Planaren laguntzen deialdia

Irigaray alkateak jakinarazi du bilerak izan direla Luzaideko, Orreagako eta Erroibarko udalekin, Donejakue Bidearen aplikazio birtual baten inguruko proiektu komun bat aurkezteko, zerbitzuak, artea eta historia eskainiko lukeen aplikazioa hain zuzen ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Conocer Navarra aldizkariaren aurkezpena

Irigaray alkateak jakinarazi du joan den hilaren 15ean, Iruñeko seminarioan, Diario de Navarra egunkariak argitaratzen duen Conocer Navarra aldizkariaren 69. zenbakiaren aurkezpena egin zela eta horretan herriari buruzko artikulua agertzen da, Julio Asuncionez idatzia. Gaineratu duenez, ekitaldi berean banatu ziren egunkariko argazki-sariak, eta bigarren saria Ainhoa Tejerina Gurutziaigaren San Juan suetako argazki bat izan zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nafarroako Gobernuko aurrekontuen emendakinak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi duenez, legebiltzar-talde guztietatik, Podemos/Ahal Dugu taldeak ikuspegi zabala izan zuen, eta Udal honen proposamenen berri eman zuen; hala, onartu egin zen inguruko eskoletarako ingurumen-hezkuntzako proiektuarena. Podemos/Ahal Dugu taldeari eskerrak eman nahi dizkiola, horrelako zuzenketek izan ohi dituzten interes alderdikoen gaintik interes soziala baloratzen jakin duelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Lakitari egindako enkargua

Irigaray alkateak jakinarazi du, lanaren zailtasuna dela eta, Goxona tabernatik eta Pedroarena tailerretik gertu dauden zuhaitzen inausketa edo mozketa enkargatu diola Lakita enpresari, eta une horretan erabakiko dela zuhaitzen egoeraren arabera zer egingo den; izan ere, enpresa hori komunikazio-bideen zuhaitzak inauten espezializatuta dago.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Tubex babesgarrien eta pneumatikoen tratamendua

Irigaray alkateak jakinarazi du Bidausi Hondakinen Mankomunitateak pneumatikoak eta zuhaitz-babesak pilatzeari dagokionez, birziklatze-plantetara eraman dituela, behar bezala tratatzeko

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Laugarren edukiontzia jartzea

Irigaray alkateak jakinarazi du Bidausi mankomunitateak modu esperimentalean ezarri nahi duela udalerrri honetan hiriko materia organikoa biltzeko edukiontzia, gastu ekonomikoa murrizteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko. Horretarako, bi informazio-saio emango dizkie bizilagunei, edukiontzi horren kudeaketa eta onurak azaltzeko, abenduaren 27an eta 30ean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

15.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.